

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Erregelamendua: 1925/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko abenduaren 20koa, elikagaiei bitaminak, mineralak eta beste zenbait substantzia zehatz gehitzeari buruzkoa

---

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «REGLAMENTO (CE) N° 1925/2006 (EE) del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de diciembre de 2006, sobre la adición de vitaminas, minerales y otras sustancias determinadas a los alimentos» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 404/26, 2006/12/30ekoa*)»

1925/2006 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 404/26, 2006/12/30ekoa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**1925/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,**

**2006ko abenduaren 20koa,**

**elikagaiei bitaminak, mineralak eta beste zenbait substantzia zehatz gehitzeari buruzkoa**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Trataturia, eta, bereziki, haren 95. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki <sup>(2)</sup>,

---

<sup>1</sup> C 112 EO, 2004.04.30koa, 44. or.

<sup>2</sup> Europako Parlamentuaren irizpena, 2005eko maiatzaren 26koa (C 117 EO, 2006.05.18koa, 206. or.), Kontseiluaren jarrera komuna, 2005eko abenduaren 8koa (C 80 E EO, 2006.04.04koa, 27. or.) eta Europako Parlamentuaren jarrera, 2006ko maiatzaren 16koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea). Kontseiluaren erabakia, 2006ko urriaren 12koa.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

eta honako hauek kontuan harturik:

(1) Elikagaiak egiteko nutriente eta osagai ugari erabil daitezke; eta, horietako batzuk dira, besteak beste, eta zerrenda zehatz bat egiteko asmorik gabe: bitaminak, mineralak, oligoelementuak, aminoazidoak, nahitaezko gantz-azidoak, zuntzak, eta hainbat landare eta belar-aterakin. Estatu kideetan, esaterako, askotariko arau nazionalak arautzen dute aipatu ditugun substantziak elikagaiei gehitzeko aukera. Arau horien arteko aldeak eragotzi egiten du mintzagai ditugun produktuen zirkulazio askea, eta, ondorioz, lehia-baldintza desberdinak sortzen dira, barne-merkatuaren funtzionamendu zuzenaren kalterako. Hori dela eta, erkidego-arauak ezarri behar dira, elikagaiei bitaminak, mineralak eta bestelako substantzia jakin batzuk gehitzeko aukera xedatzen duten arau nazionalak harmonizatzeko.

(2) Erregelamendu honen bidez arautu nahi da janariei bitaminak eta mineralak gehitzeko aukera, baita beste substantzia edo osagai jakin batzuk, bitaminarik edo mineralik ez dutenak, erabiltzekoa ere; izan ere, gerta daiteke horiek kopuru handietan janariei gehitzea edota janariak prestatzeko erabiltzea, eta, ondorioz, nabarmen gaintzea dieta orekatu bat izateko edo/eta dieta bariatu bat izateko arrazoizkoak diren kopuruak, edota, bestelako arrazoiak direla medio, haiek arriskugarriak izatea kontsumitzaileentzat. Ez bada, erregelamendu honek edo Erkidegoko berariazko xedapenek araututakoari jarraiki, berariazko erkidego-xedapenik eman bitaminak edo mineralak ez diren substantziak dituzten osagaien edo substantzien erabilera debekatzeko edo mugatzeko, aukera izango da xedapen nazionalak aplikatzeko alor horretan; betiere, Tratatuaren xedapenak beteta.

(3) Zenbait estatu kideek, osasun publikoa zaintze aldera, behartu egiten dute ohiko hainbat elikagaiei zenbait bitamina eta mineral gehitzera. Arrazoi horiek baliagarri izan daitezke nazioetan edo eskualdeetan. Hala ere, hori ez da nahikoa arrazoi nutrienteak Erkidego osoan modu bateratuan gehitu behar direla arautzeko. Nolanahi ere, zenbait egoeratan edota uneren batean egoki izango balitz, gisa horretako xedapenak ezar litezke Erkidego osorako. Bien bitartean, erabilgarria izan daiteke neurri nazional horiei buruzko informazioa biltzea.

(4) Elikagaiak ekoizten dituztenek nahita gehi diezazkiekete bitaminak eta mineralak elikagaiei. Nolanahi ere, Erkidegoko lege zehatzak betetze aldera, gerta liteke bitaminak eta mineralak substantzia nutritibo gisa elikagaiei gehitu behar izatea. Helburu teknologikoekin ere gehi daitezke —gehigarri, koloratzaile edo aroma gisa—, Erkidegoko lege egokiek baimendutako praktika eta prozesu enologikoetan, adibidez. Badira bitaminak eta mineralak produktu nahiz produktutalde zehatzei gehitzeari buruzko Erkidegoko xedapen zehatzak, baita erregelamendu honetan jaso ez diren xedeetarako bitaminak eta mineralak gehitzeari buruzkoak ere. Erregelamendu hau, beraz, aipatu berri ditugun xedapenak bazter utzi gabe aplikatu beharra dago.

(5) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko ekainaren 10eko 2002/46/EE Zuzentarauak, elikagai osagarrien inguruko estatu kideen legeak gerturatzeari buruzkoak <sup>(1)</sup>, bitaminak eta mineralak dituzten elikagai osagarriei buruzko xedapen zehatzak ezarri ditu. Aipatu berri duguna gogoan, Erregelamendu honek jaso dituen bitaminei eta mineralei buruzko xedapenak ez zaizkie elikagai-osagarriei aplikatuko.

(6) Produktugileek hainbat helburu betetzeko gehitzen dizkiete bitaminak eta mineralak elikagaiei, besteak beste: fabrikatzean, biltegitratzean edo manipulatzeko produktuak galdu duen edukia berreskuratzeko; edota beste produktu baten ordezkotako den produktua egitean, produktu berriari originalaren antzerako balio nutrizionala emateko.

(7) Egoera normaletan, dieta egoki eta askotarikoak organismo osasuntsua zaintzeko eta normaltasunez garatzeko beharrezkoak diren nutriente guztiak eskaini ditzake, datu zientifiko eskuarki aintzatetsiak kontuan harturik ezarri eta gomendatu diren neurrian. Nolanahi ere, zenbait azterlanek erakutsi dute praktikan egoera ideal hori ez dutela bitamina eta mineral guztiak bizi, ezta Erkidegoko herritar-talde guztiak ere. Bitamina eta mineral gehituak dituzten elikagaiek nutriente horiek hartzen laguntzen dutela dirudi. Hori dela eta, esan dezakegu elikagai horiek, oro har, nutrienteak hartzen laguntzen dutela.

---

<sup>1</sup> L 183 EO, 2002.07.12koa, 51. or. Zuzentaru hori 2006/37/EE Erabakiak aldatu du (L 94 EO, 2006.04.01ekoa, 32. or.).

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(8) Demostratu daiteke gaur egun Erkidegoan badirela zenbait nutriente gabezia, sarri askoan ez bada ere. Erkidegoan nagusi den egoera sozioekonomikoaren aldaketan nahiz zenbait herritar-talderen bizimoduan gertatu diren aldaketen eraginez, behar nutrizional berriak sortu dira eta elikatze ohiturak aldatu egin dira. Horrek hainbat aldaketa eragin ditu zenbait herritar-talderen kaloria- nahiz nutriente-beharretan. Talde horiek, hortaz, zenbait estatu kidetan gomendaturikoa baino bitaminen eta mineralen kopuru urriagoa hartzen dute. Gainera, aurrerakuntza zientifikoetatik eratorritako azterlanek zehaztu egin dute, osasun eta ongizate bikainak zaintze aldera, nutriente jakin batzuk egun gomendatzen dena baino kopuru handiagoan hartu beharko lirakeela.

(9) Elikagaiei ohiko dietako parte diren eta ohiko dietan hartzen diren bitaminak eta mineralak soilik gehitzea baimenduko da, nahitaezko nutrienteak izan behar dira. Horrek ez du esan nahi nutriente horiek gehitzea beharrezkoa denik. Horrenbestez, argi eta garbi adierazi behar da zein diren funtsezko nutriente horiek, kontraesanik gerta ez dadin. Hartara, bitamina eta mineral horien zerrenda positiboa ezartzea beharrezkoa da.

(10) Elikagaiei gehi dakizkiekeen bitamina eta mineralen iturri gisa erabili diren substantzia kimikoek seguruak eta bioeskuragarriak izan behar dute, hau da, organismoak erabiltzeko modukoak izan behar dute. Hori dela eta, substantzia horien zerrenda positiboa ezarri beharra dago. Zerrenda horretan jasoko dira, besteak beste, giza elikaduraren komite zientifikoak, 1999ko maiatzaren 12an argitaratu zuen irizpenaren bidez eta arestian aipatu ditugun segurtasun- nahiz bioeskuragarritasun-irizpideei jarraiki, onartu zituen substantziak. Substantzia horiek bularreko haurrentzako nahiz adin txikiko haurrentzako elikagaiak fabrikatzean erabil daitezkeenak dira, baita elikagai bereziak egiteko edo elikagai-osagarriak lantzeko erabil daitezkeenak ere. Kloruro sodikoa (gatz arrunta) zerrendako substantzien artean ageri ez bada ere, elikagaiak prestatzeko osagai moduan erabiltzen jarrai daiteke.

(11) Egoki denean, mintzagai dugun zerrenda berrikusi beharra dago, ahalik eta lasterren, zerrendak azken aurrerakuntza zientifiko eta teknologikoak jaso ditzan eta eguneraturik egon dadin. Berrikuspenak garapen-arau teknikotzat hartuko dira, eta haiek egiteko prozedura soilte eta arintze aldera, Batzordeak egingo ditu berrikuspen horiek.

(12) Askotan, fabrikatzaileek bitaminak eta mineralak gehitu zaizkien elikagaien publizitatea egiten dute eta kontsumitzaileek, nutriente horiek gehitu ez zaizkien antzerako edo bestelako produktuekin alderatuz, osasunarentzat abantaila nutrizionalak, fisiologikoak edo bestelakoak dituzten produktutzat har ditzakete gehigarridun produktu horiek. Publizitateak, hortaz, kontsumitzailea bultzatzen dezake beste arrazoi batzuegatik desegokiak diren erabakiak hartzera. Balizko ondorio negatibo horiei aurre egiteko, egoki jotzen da bitaminak eta mineralak gehi dakizkiekeen produktuei zenbait muga ezartzea. Esan gabe doa, segurtasuna bermatze aldera, produktuei bitaminen eta mineralen muga maximoak ezartzeko beharrezkoak diren murriztapenak edota azterketa teknologikoetatik eratorritako murriztapenak aplikatuko zaizkiela. Ildo horretatik, produktu batean substantzia jakin batzuk egotea –alkohola kasu– irizpide egokia litzateke produktu horri bitaminak edota mineralak gehitzen ez uzteko. Badira zenbait salbuespen zeinetan alkoholdun edariei bitaminak eta mineralak gehi dakizkiekeen. Salbuetsiriko gehikuntza horiek ardoaren antzinako errezetak zaintzeko helburua betetzera mugatu behar dute. Hartara, salbuetsiriko produktuen berri emango zaio Batzordeari. Adizioei ez zaie inolako balio nutrizionalik edo ezaugarri osasungarririk esleituko. Gainera, elikagai freskoei bitaminak edo mineralak gehitzea ekidin behar da, kontsumitzaileak elikagai freskoei nutrizio balio naturalaren gain iritzi okerra izan ez dezan.

(13) Erregelamendu honen helburua ez da, iruzurrari aurre egiteko, bitaminak eta mineralak kopuru oso txikietan erabiltzea arautzea, jokabide hori benetakotasunaren adierazletzat joz.

(14) Bitamina eta mineral gehiegi hartzeak ondorio kaltegarriak izan ditzake osasunarentzat. Beraz, zenbait kasutan, elikagaiei gehi dakizkiekeen bitamina- eta mineral-kopuru maximoak ezartzea komeni da. Kopuru horiek bermatu egin behar dute produktuak normaltasunez erabiltzea, hau da, produktuaren fabrikatzaileak zehazturiko jarraibideak betez erabiltzea, segurua izango dela dieta anitza hartzen duten kontsumitzaileentzat. Hortaz, kopuru maximoak elikagaietan naturalki dauden edota elikagaiei zeinahi xedez –xede teknologikoak barne– gehitu zaizkien bitaminen eta mineralen segurtasun-kopuru maximoak izango dira.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(15) Hori dela eta, egoki denean, kopuru maximo aipatuak eta elikagaiei bitaminak nahiz mineralak gehitzeko baldintzak ezarri behar dira. Horrez gain, nutriente horien segurtasun-kopuru maximoak hartu behar dira kontuan. Bestetik, zenbateko maximoak ezartzeko arriskuari buruzko ebaluazio zientifikoa gauzatu beharra dago. Ebaluazio horrek, bidenabar, eskuarki aintzatetsiriko datu zientifikoak izan behar ditu oinarri. Ebaluazioa egitean, bestetik, kontuan hartu behar da beste elikagai batzuen bidez ere mintzagai ditugun nutrienteak har ditzakegula. Gogoan izan behar ditugu herritarrentzat ezarri diren bitaminen eta mineralen erreferentziako kopuruak. Zenbaitetan, mugak ezarri behar zaizkie bitaminak eta mineralak gehi dakizkiekeen elikagaiei (gatzari iodoa gehitzean, esaterako). Lehentasunak ezartzeko, bi helburu hartu behar dira kontuan: batetik, produktua fabrikatzean, biltegitratzean edo manipulatzeko edukia murriztu eta hura leheneratzeko helburua; eta bestetik, elikagai berrien balio nutrizionala elikagai originalen antzerakoa izatea.

(16) Elikagaiei gehitzen zaien bitamina- eta mineral-kopuruak minimoa izan behar du. Bestela, elikagai aberastu horietan bitamina- eta mineral-kopuru txikiak eta hutsalak egoteak ez die inolako abantailarik ekarriko kontsumitzaileei, ere gehiago, okerreko bidea hartzea bultzatzen ditzake. Elikagaiek nutriente horien kopuru adierazgarria izan behar dute ezaugarri nutritiboak buruzko etiketatik hala jaso ahal izateko. Baldintza horrek, hortaz, kontsumitzaileek iruzurra pairatzea saihestea du oinarri. Hortaz, komeni da nutrienteak etiketatik jasoak izateko elikagaiek izan behar duten kopuru hautemangarriaren bestekoa izatea bitaminak eta mineralak gehitu zaizkien elikagaitan dagoen bitamina eta mineralen gutxienezko kopurua —betiere, kontrakoa agintzen duen salbuespen zehatzik ez badago—.

(17) Garapeneko arau teknikoetat joko dira kopuru maximoak nahiz erregelamendu honetan ezarri diren printzipioak zein irizpideak aplikatzeko erabilera-baldintzak ezartzea eta kopuru minimoak ezartzea. Arau horiek Batzordearen esku utzi behar dira, prozedura soildu eta arintze aldera.

(18) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000. urteko martxoaren 20ko 2000/13/EE Zuzentarauak, estatu kideetako elikagaiak etiketatzeari, elikagaien itxurari eta publizitateari buruzko legeak batzeari buruzkoak<sup>(1)</sup>, etiketatzeari buruzko xedapen eta definizio orokorrak dakartza. Horrenbestez, Erregelamendu honek beharrezkoak diren xedapen gehigarriak ezarri ditu, ez besterik. Horrela, xedapen gehigarri horiek aplikatu egin behar dira, baina alde batera utzi gabe Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 20ko 1924/2006/EE Erregelamendua, elikagaien ezaugarri osasungarriak eta nutrizionalak aitortzeari buruzkoak, xedatutakoa<sup>(2)</sup>

(19) Bitaminak eta mineralak gehitu zaizkien produktuak garrantzi handikoak direnez eta produktu horiek elikatzearen ohituren gain nahiz nutrienteen guztizko ingestaren gain eragina izan dezaketenez, biziki garrantzitsua da kontsumitzailea gai izatea produktuaren kalitate nutrizionala ebaluatzeko. Horrenbestez, produktu elikagarrien ezaugarri nutritiboak etiketatzeari buruzko Batzordearen 1990eko irailaren 24ko 90/496/EE Zuzentarauaren 2. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik (3), etiketatze nutrizionala derrigorrezkoa izango da.

(20) Dieta normal eta bariatuek osagai asko dituzte, eta azken horiek, halaber, substantzia asko. Betiko dietetan normaltasunez eta ohituraz erabili izan direnez, substantzia edo osagai horiek hartzea ez da kezagarria, eta ez da arautu behar. Bitaminak eta mineralak ez diren substantziak edo azken substantzia horiek dituzten osagaiak gehitu ohi zaizkie elikagaiei. Gehigarri horiek aterakinak edo kontzentratuak izan ohi dira. Gehikuntza horien eraginez dieta egoki eta askotarikoa hartzean hartu ohi ditugun kopuruak baino askoz handiagoak har ditzakegu. Zenbait kasutan biziki eztabaidatu da praktika horien segurtasunaren inguruan, eta joera horien onurak ez daude batere argi. Hortaz, arautu egin behar dira. Kasu horietan, elikagaien inguruko eragileek, hau da, jateko produktuen segurtasunaren ardura dutenek, probaren zama beren gain hartu behar dute.

---

<sup>1</sup> L 109 EO, 2000.05.06koa, 29. or. Azken aldaketa 2003/89/EE Zuzentarauak egin dio (L 308 EO, 2003.11.25ekoak, 15. or.).

<sup>2</sup> Ikus Egunkari Ofizial honetako 9. orrialdea. (3) L 276 EO, 1990.10.06koa, 40. or. Azken aldaketa Batzordearen 2003/120/EE Zuzentarauak egin dio (L 333 EO, 2003.12.20koak, 51. or.).

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(21) Bitaminak eta mineralak gehitzen zaizkien elikagaiaik bereziak izan ohi dira. Hortaz, kontrol organoen esku egun dauden baliabideez gain beste batzuk ere jarri behar dira produktu berezi horiek eraginkortasunez ikuskatzeko.

(22) Erregelamendu honek bi helburu bete nahi ditu aldi berean. Batetik, barne merkatuak eraginkortasunez funtzionatzen duela bermatzea, betiere, bitaminak, mineralak eta beste substantzia jakin batzuk elikagaiei gehitzeari dagokionez. Eta, bestetik, kontsumitzaileak guztiz babestea. Estatu kideek ezin dute helburu hori bete. Ondorioz, Erkidegoaren esku dago mintzagai ditugun helburuak betetzea. Erkidegoak, Tratatuaren 5. artikuluan ezarritako subsidiarotasun printzipioarekin bat, zenbait neurri ezarri ditzake. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, Erregelamendu honek ez du beharrezkoa baino haratago joko helburu horiek lortzeko.

(23) Erregelamendu hau betearazteko beharrezkoak diren neurriak Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakian xedatutakoaren arabera ezarriko dira. 1999/468/EE Erabakia 1999ko ekainaren 28koa da eta haren bidez ezarri egin dira Batzordeari esleitu zaizkion eskumen betearazleak erabiltzeko prozedurak<sup>(1)</sup>.

ERREGELAMENDU HAU EZARRI DUTE:

I. KAPITULUA

**HELBURUA, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK**

*1. artikulua*

**Edukia eta aplikazio-eremua**

1. Erregelamendu honen helburua da estatu kideek bitaminak, mineralak eta beste substantzia jakin batzuk elikagaiei gehitzeari buruz aplikatzen dituzten xedapen legalak, erregelamenduzkoak edo administratiboak harmonizatzea. Horrela, barne merkatuak eraginkortasunez funtzionatuko duela bermatuko da, eta, era berean, babes handia emango zaie kontsumitzaileei.

2. Erregelamendu honetako xedapenak, bitaminei eta mineralei buruzkoak, ez zaizkie aplikatuko 2002/46/EE Zuzentarauak araututako elikagai-osagarriei.

3. Erregelamendu hau aplikatuko da Erkidegoan ezarritako hainbat lege zehatzen xedapenak bazter utzi gabe. Aipatu berri ditugun legeak gai hauei buruzkoak dira:

a) elikadura bereziko elikagaiei buruzko legeak. Horren inguruko xedapen zehatzik ez badago, kontsumitzaileen behar nutrizional bereziak estaltzeko produktu zehatzek bete behar dituzten baldintzak hartuko dira kontuan;

b) elikagai berriei eta elikagaietako osagai berriei buruzko legeak;

c) genetikoki aldatutako elikagaiei buruzko legeak;

---

<sup>1</sup> L 184 EO, 1999.07.17koa, 23. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- d) elikagaientzako usain gozoei nahiz gehigarriei buruzko legeak;
- e) praktika nahiz prozesu enologiko baimenduei buruzko legeak.

*2. artikulua*

**Definizioak**

Erregelamendu honetan, definizio hauek hartuko dira kontuan:

(1) «Agintaritza», Elikagaien Segurtasuneko Europar Agintaritza. Agintaritza hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko urtarrilaren 28ko 178/2002/EE Erregelamenduaren ondorioz sortu zen. Erregelamendu horren bidez, halaber, elikagaiei buruzko legeen printzipioak eta baldintza orokorrak ezarri ziren, baita Elikagaien Segurtasuneko Europar Agintaritza sortu eta elikagaien segurtasunari loturiko prozedurak finkatu ere <sup>(1)</sup>.

(2) «bestelako substantzia», bitamina edo minerala ez den substantzia, ondorio nutrizionalak edota fisiologikoak dituena.

II. KAPITULUA

**BITAMINAK ETA MINERALAK GEHITZEA**

*3. artikulua*

**Bitaminak eta mineralak gehitzeko baldintzak**

1. Elikagaiei I. eranskinean ageri den zerrendan jaso diren bitaminak edota mineralak soilik gehi dakizkieke, betiere II. eranskinean zehaztu bezala. Esan gabe doa eranskinak Erregelamendu honetan ezarri diren arauen mende daudela.

2. Produktuek edukita ere, elikagaiei bitaminak eta mineralak gehitu ahal izango zaizkie, betiere pertsonen organismoarentzat bioerabilgarri diren neurrian. Horretarako, honako alderdi hauek hartu ahal izango dira kontuan:

a) herritarrek edo herritar-talde jakin batzuek mineral edota bitamina baten edo bat baino gehiagoren falta edukitzea. Gertakari hori proba klinikoen edo subklinikoen bidez frogatu beharra dago. Bestela ere, nutrienteak neurri txikian hartzen direla erakusten duten estimazioak azterturik ondoriozta daiteke mintzagai dugun gabezia.

b) herritarren edo herritar-talde jakin batzuen egoera nutrizionala hobetzeko aukera, edota, elikadura ohituretan gertatutako aldaketen eraginez, egunero hartzen dugun bitamina- nahiz mineral-kopuruan egon litezkeen balizko gabeziak zuzentzeko aukera.

c) bitaminek eta mineralek nutrizioan duten egiteko eskuarki aintzatetsiei eta substantzia horiek osasunaren gain dituzten eraginei buruzko ezagutza zientifikoaren aurrerakuntzak.

---

<sup>1</sup> L 31 EO, 2002.02.01ekoa, 1. or. Azken aldaketa Batzordearen 575/2006 (EE) Erregelamenduak (L 100 EO, 2006.04.08koak, 3. or.) egin dio.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

3. Artikulu honetako 1. paragrafoan aipatzen diren zerrendetako aldaketak 14. artikuluko 2. paragrafoan zehazturiko prozeduraren arabera eta Agintaritzaren irizpena kontuan harturik gauzatuko dira. Aldaketa horiek sartu aurretik, Batzordeak alderdi interesdunei iritzia eskatuko die, batez ere, elikagaigintzaren sektoreko eragileei eta kontsumitzailetaldee.

### *4. artikulua*

#### **Bitaminak eta mineralak gehitzeko mugapenak**

Ezin izango zaie bitaminarik ezta mineralik gehitu honako produktu hauei:

- a) aldatuak izan ez diren elikagaiak, hala nola: frutei, barazkiei, haragiari, hegaztikiari edo arrainari;
  - b) alkohol tasa % 1,2tik gorakoa duten edariei. Hala ere, 3. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa bazter utzi gabe, honako baldintza hauek betetzen dituzten produktuei bitaminak eta mineralak gehitu ahal izango zaizkie:
    - i) ardoaren merkatuaren antolakuntza komunari buruzko 1999ko maiatzaren 17ko Kontseiluaren 1493/1999/EE Erregelamenduko 44. artikuluko 6. eta 13. paragrafoetan aipaturik agertzea (<sup>1</sup>); eta
    - ii) Erregelamendu hau ezarri aurretik merkaturatuak izatea; eta
    - iii) estatu kide batek, 11. artikuluekin bat etorriz, Batzordeari haren berri ematea,
- betiere produktuei alegazio nutrizionalik nahiz ezaugarri osasungarriak esleitu ez bazaie.

Era berean, 14. artikuluko 2. paragrafoan jaso den prozedurarekin bat, zenbait bitamina eta mineral gehitu ezin izango zaizkien beste elikagai edo elikagai-kategoria batzuk ezarri ahal izango dira. Horretarako, froga zientifikoak eta produktuen balio nutrizionala kontuan hartuko dira.

### *5. artikulua*

#### **Purutasun-irizpideak**

- 1. II. eranskinean zehaztu diren formula bitaminikoen nahiz substantzia mineralen purutasun-irizpideak ezartzeko 14. artikuluko 2. paragrafoan jaso den prozedura beteko da, irizpideok artikuluko 2. paragrafoaren arabera aplikatzen direnean izan ezik.
- 2. Erregelamendu honek arautzen dituen xedeez bestera fabrikatzen diren elikagaiak egiteko Erkidegoko legeek ezartzen dituzten purutasun-irizpideak II. eranskinean jaso diren formula bitaminikoei eta substantzia mineralari aplikatuko zaizkie.
- 3. II. eranskinean ageri diren eta, Erkidegoko legeen arabera, purutasun irizpiderik finkaturik ez duten formula bitaminikoei nahiz substantzia mineralari —irizpideok finkatu bitartean, bederen— nazioarteko erakundeek gomendaturiko eta eskuarki aintzatetsirik dauden purutasun-irizpideak aplikatuko zaizkie. Horrela, bere horretan utzi ahal izango dira purutasun-irizpide hertsiazoak ezartzen dituzten arau nazionalak.

### *6. artikulua*

#### **Bitaminak eta mineralak gehitzeko baldintzak**

---

<sup>1</sup> L 179 EO, 1999.07.14koa, 1. or. Azken aldaketa 2165/2005 (EE) Erregelamenduak (L 345 EO, 2005.12.28koa, 1. or.) egin dio.



## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Elikagaiei bitaminak edota mineralak gehitzean —zeinahi ziogatik gehituta ere—, kontuan hartu beharra dago merkaturaturiko elikagaiak ezin duela gehigarrien kopuru maximo finkatua gaingitu. Kopuru maximo hori 14. artikuluko 2. paragrafoan zehaztu den prozeduraren arabera finkatuko da. Hortaz, kopuru maximoak ezartze aldera, Batzordeak hainbat proposamen aurkeztu ahal izango ditu 2009ko urtarrilaren 19a baino lehen. Produktu kontzentratuen eta deshidratatuen kopuru maximoak, esaterako, fabrikatzailearen argibideei jarraituz produktua kontsumitzeko prestatzen denean elikagaietan daudenak izango dira.

2. Bitamina edo mineral zehatz bat elikagai edota elikagai-kategoria bati gehitzea debekatzen edo mugatzen duten baldintzak ezartzeko, 14. artikuluko 2. paragrafoan zehazturiko prozedura beteko da.

3. 1. paragrafoan aipaturiko kopuru maximoak eta 2. paragrafoan zehazturiko baldintzak finkatzeko honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

a) bitaminen eta mineralen segurtasun-maila maximoak. Segurtasun-maila ezartzeko, arriskua zientifikoki zehaztu da, eskuarki aintzatetsiriko datu zientifikoak oinarri harturik. Horrez gain, egoki izan bada, kontsumitzaile-kategoria desberdinen sentsibilitate-mailak hartu dira kontuan.

b) dietako beste iturri batzuetatik bitaminak eta mineralak ere har daitezkeela izango dugu gogoan.

4. 1. paragrafoan adierazi diren kopuru maximoak eta 2. paragrafoan aipatu diren baldintzak ezartzen direnean, herritarrek hartu behar duten bitamina- eta mineral-kopuru erreferentziala hartuko da kontuan.

5. Behin 1. paragrafoan aipatu diren kopuru maximoak ezarririk eta 2. paragrafoan zehazturiko baldintzak finkaturik —hots, herritarrek hartu behar duten bitamina- eta mineral-kopuru erreferentziala segurtasun-mailen ingurukoa denari buruzko paragrafoan zehazturiko baldintzak finkaturik—, beharrezkoa izanez gero, honako hauek ere hartu beharko dira kontuan:

a) produktu bakoitzak herritar oren edo herritar-azpitaldeen dietari egiten dion ekarpena.

b) produktuaren ezaugarri nutrizionalak, 1924/2006 (EE) Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera ezarriak.

6. Bitamina edo mineral bat elikagai bati gehitzen badiogu, bitamina edo mineral horren kopuru esanguratsuak egongo da elikagaian. Aipatu berri dugun kopurua 90/496/EEE zuzentarauko eranskinaren arabera zehaztuko da. Elikagai nahiz elikagai-kategoria zehaztutako kopuru minimoak —edota minimoaz azpiko zeinahi kopuru txiki— arestian aipatu ditugun kopuru adierazgarrien aldean salbuespen direnak, 14. artikuluko 2. paragrafoan azalduko prozedurari jarraiki ezarriko dira.

### *7. artikulua*

#### **Etiketatzea, aurkezpene eta publizitatea**

1. Bitaminak edota mineralak gehitu zaizkien produktuen etiketan, aurkezpenean eta publizitatean ez da esango edo iradokiko dieta orekatu eta bariatua hartzea ez dela aski nutriente-kopuru egokia lortzeko. Egoki denean, 14. artikuluko 2. paragrafoan jaso den prozedurari jarraiki, nutriente zehatz bat salbuetsi ahal izango da.

2. Bitaminak edo mineralak gehitu zaizkien elikagaien etiketak, aurkezpenak eta publizitateak ez diote kontsumitzaileari iruzurrik egingo eta ez dute kontsumitzailea okerraraziko mintzagai ditugun nutrienteak gehitzearen abantaila nutritiboen gain.

3. Derrigorrezkoa izango da Erregelamendu honetan arautu diren eta bitaminak nahiz mineralak gehitu zaizkien produktuen etiketetan ezaugarri nutritiboei buruzko informazioa jartzea. Etiketan, hartara, 90/496/EEE Zuzentarauaren

1925/2006 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 404/26, 2006/12/30ekoa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

4. artikulua 1. paragrafoko 2. taldean aurreikusi diren datuak jarriko dira. Horrez gain, elikagaiari bitaminak eta mineralak gehitu bazaizkio, produktuak duen bitamina- eta mineral-kopuru osoa zehaztuko da.

4. Bitaminak eta mineralak gehitu zaizkien produktuen etiketek idatzi bat ekar dezakete, 1924/2006 (EE) Erregelamenduan ezarritako baldintzak betetze aldera gehitu zaizkiela adierazteko.

5. Artikulu hau aplikatu ahal izango da, elikagai-kategoria zehatzei aplika dakizkiekeen elikagaiei buruzko legetako beste xedapen batzuk bazter utzi gabe.

6. 14. artikuluko 2. paragrafoan jaso den prozedurarekin bat, zenbait arau ezarri ahal izango dira artikulu hau garatzeko.

### III. KAPITULUA

#### BESTE SUBSTANTZIA JAKIN BATZUK GEHITZEA

##### 8. artikulua

#### **Erkidegoak mugatutako, debekatutako edo kontrolpean jarritako substantziak**

1. Bitamina edota minerala ez den substantzia bat ala bitamina edo minerala ez den substantzia bat duen osagai bat elikagaiei gehitzen bazaie nahiz elikagaiak prestatzeko erabiltzen bada, artikulu honetan aurreikusiriko prozedurari jarraituko zaio, betiere kontuan izanik aipatu substantzia gehitzean hura ez dela hartuko dieta orekatu eta bariatuen bidez baldintza normaletan kontsumitu daitekeena baino kopuru askoz handiagoan edo ez direla gehituko, bestelako arrazoiak medio, kontsumitzailearen osasunerako balizko arrisku izan daitezkeen neurrian.

2. Batzordeak, bere ekimenez edota estatu kideek emandako informazioa oinarri harturik, beharrezkoa izanez gero, kasuan kasuko substantzia edota osagaia III. eranskinean jasotzeko erabakia har dezake; betiere, agintaritzak kasu guztietan eskura dagoen informazioa ebaluatu ondoren eta 14. artikuluko 2. paragrafoan jaso den prozedurari jarraiki. Batez ere, honako kasu hauetan:

a) osasunarentzat ondorio kaltegarriak egiaztatzen badira, substantzia bera edota substantzia hori duen osagaia:

i) III. eranskinean jasoko da, A zatian, eta debekatu egingo da substantzia nahiz osagai hori elikagaiei gehitzea edota elikagaiak fabrikatzean erabiltzea.

ii) III. eranskineko B zatian jasoko da, eta elikagaiei gehitzea nahiz elikagaiak fabrikatzean erabiltzea baimentzeko B zatian ezarritako baldintzak bete beharko dira;

b) osasunarentzat kaltegarria den ondorioa izan dezakeela egiaztatzen bada, zalantza zientifikorik badago ere, III. eranskineko C zatian jasoko da substantzia.

3. Elikagai zehatzei aplika dakizkiekeen xedapen komunitarioek, Erregelamendu honetan ezarritakoez gain, zenbait substantzia erabiltzeko debekuak edota mugatzeak aurreikusi ahal izango dituzte.

4. Elikagaien sektoreko eragileek, edota interesik duen zeinahi alderdik, agintaritzari espediente bat aurkez diezaiokete zeinahi unetan. Espediente horretan, III. eranskineko C zatian zehazturiko substantziaren kaltegarritasuna egiaztatzen duten datu zientifikoak jasoko dira. Espedientearen, halaber, elikagai jakin batean ala elikagai-kategoria batean zer baldintzatan erabiltzen den eta zertarako erabiltzen den adierazi beharra dago. Agintaritzak espediente hori aurkeztu izanaren berri emango die, berandu gabe, estatu kideei nahiz Batzordeari eta horien esku jarriko du.

5. III. eranskineko C zatian substantzia bat inskribatu den egunetik lau urte igaro ondoren, 14. artikuluko 2. paragrafoan jasotako prozedurarekin bat eta Agintaritzaren irizpena kontuan harturik, artikulu honetako 4. paragrafoan

1925/2006 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 404/26, 2006/12/30ekoa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

xedatutakoarekin bat etorri ebaluaturiko zeinahi espedienteren gain honako erabakia hartuko da: III. eranskineko C zatian jasotako substantzia eskuarki erabiltzeko baimena eman ala substantzia hori III. eranskineko A ala B zatian sartu, egoki den moduan.

6. Batzordeak, 14. artikuluko 2. paragrafoan jasotako prozedurarekin bat, artikuluko hau aplikatzeko beharrezkoak diren garapen arauak ezarriko ditu, bereziki, artikuluko honetako 4. paragrafoan aipaturiko aurkezpenari buruzko xedapenak.

#### IV. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK ETA AZKEN XEDAPENAK

#### 9. artikulua

#### **Erkidegoko erregistroa**

1. Elikagaiei gehitzen zaizkien bitaminei, mineralei eta bestelako substantziei buruzko erkidego-erregistroa (aurrerantzean, «Erregistroa») sortu eta beteko du Batzordeak.

2. Erregistroan honakoak jasoko dira:

- a) I. eranskinean jaso diren bitaminak nahiz mineralak, elikagaiei gehi dakizkiekeenak,
- b) II. eranskinean jaso diren formula bitaminikoak nahiz substantzia mineralak, elikagaiei gehi dakizkiekeenak,
- c) elikagaiei gehi dakizkiekeen bitamina eta mineralen kopuru maximoak nahiz 6. artikulua betez ezarriko baldintza guztiak,
- d) bitaminak eta mineralak derrigorrean gehitzeari aplikatu dakizkiekeen xedapen nazionalen buruzko informazioa, 11. artikuluan jasotakoa,
- e) 4. artikuluan aurreikusitako bitaminak eta mineralak gehitzearen gaineko mugatzeak,
- f) substantziak zeinen espedienteak 17. artikuluko 1. paragrafoaren b) idatz-zatian xedatutakoaren arabera aurkeztu diren,
- g) III. eranskinean jasotako substantziei buruzko informazioa eta substantzia horiek III. eranskinean sartzearen arrazoiak.
- h) III. eranskineko C zatiko zerrendan ageri diren substantziei buruzko informazioa, zeinen erabilera eskuarki baimendurik dagoen, 8. artikuluko 5. paragrafoari jarraiki.

3. Erregistroa publikoa izango da.

#### 10. artikulua

#### **Salgaien zirkulazio askea**

Tratatuan xedatutakoa bazter utzi gabe, batez ere Tratatuen 28. eta 30. artikuluetan zehaztutakoa bazter utzi gabe, estatu kideek ezin izango dituzte elikagaiei bitaminak eta mineralak gehitzea arautzen duten eta bateraturik ez dauden xedapen nazionalak ezarri Erregelamendu honetan nahiz Erregelamendu hau garatzeko hitzartu diren erkidegoko ekintzetan xedatutakoa betetzen duten elikagaien merkaturatzea debekatzeko eta mugatzeko.

#### 11. artikulua

#### **Xedapen nazionalak**

1925/2006 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 404/26, 2006/12/30ekoa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. 2007ko uztailaren 19an, asko jota, estatu kideek bitaminak eta mineralak nahitaez gehitzeari buruz indarrean dauden xedapen nazionalen eta 4. artikuluko b) idatz-zatian aipatu den salbuespenak estalirik dauden produktuen berri eman beharko diote Batzordeari.

2. Erkidegoko xedapenik ez dagoelako, estatu kide batek ondoko gaiei buruzko xedapen berria ezartzea beharrezkoa dela uste badu:

a) bitaminak eta mineralak elikagai zehatzei edota elikagai-kategoria zehatzei halaberrez gehitzeari buruzko legezko xedapen berria, ala

b) elikagai zehatzak fabrikatzean beste substantzia jakin batzuk erabiltzeko debekuari edota erabilera mugatzeari buruzko legezko xedapen berria ezartzea beharrezkoa dela egoki baderitzo, 12. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki Batzordeari jakinaraziko dio.

### *12. artikulua*

#### **Jakinarazpen-prozedura**

1. Estatu kide batek legezko xedapen berria ezartzea beharrezkoa dela uste badu, Batzordeari nahiz gainerako estatu kideei aurreikusiriko neurrien berri emango die. Horrez gain, neurri horiek justifikatzeko arrazoiak zein diren zehaztuko du.

2. Batzordeak 14. artikuluko 1. paragrafoan aipaturiko Komiteari iritzia eskatuko dio, itauntzea beharrezkoa dela uste badu edota estatu kideren batek hala eskatzen badu. Batzordeak, hortaz, aurreikusiriko neurriei buruzko irizpena emango du.

3. Aipaturiko estatu kideak aurreikusiriko neurriak ezarri ahal izango ditu 1. paragrafoan zehazturiko jakinarazpena egin denetik sei hilabete igaro ondoren, betiere, Batzordeak kontrako irizpena eman ez badu.

Batzordeak kontrako irizpena eman badu, irizpen horretan zehaztu beharko da, 14. artikuluko 2. paragrafoan zehazturiko prozedurari jarraiki eta lehenengo paragrafoan aipaturiko denbora tarte igaro aurretik, aurreikusiriko neurriak aplikatu daitezkeen ala ez. Batzordeak aurreikusiriko neurriei zenbait aldaketa egitea eska dezake.

### *13. artikulua*

#### **Babes-neurriak**

1. Estatu kide batek produktu bat pertsonen osasunarentzat arrisku larria izan daitekeela pentsatzeko arrazoi sendoak baditu, estatu kideak bere lurraldean xedapenen aplikazioa aldi baterako eten edo mugatu dezake, nahiz eta produktuak Erregelamendu honetan xedatutakoa bete.

Gainerako estatu kideei eta Batzordeari horren berri emango die, baita bere erabakiaren zioak azaldu ere.

2. Erabaki bat hartuko da, 14. artikuluko 2. paragrafoan zehazturiko prozedurarekin bat. Horretarako, egoki bada, Agintaritzaren zehaztapena bilduko da aurrez. Batzordeak bere ekimenez jarri ahalko du martxan prozedura hori.

3. 1. paragrafoan aipaturiko estatu kideak etetea edo mugatzea bere horretan mantendu ahal izango du 2. paragrafoan aurreikusiriko erabakiaren berri ematen dioten arte.

### *14. artikulua*

#### **Komitea**

1925/2006 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 404/26, 2006/12/30ekoa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Batzordeak 178/2002 (EE) Erregelamenduaren 58. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako elikakatearen eta animalien osasunbidearen Komite iraunkorraren laguntza jasoko du (aurrerantzean «Komitea»).

2. Atal hau aipatzen denean, 1999/468/EE Erabakiaren 5. eta 7. artikulua aplikatu behar dira, 8. artikuluan xedaturikoa betez.

1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluko 6. paragrafoan xedaturiko epea hiru hilabetekoa izango da.

3. Komiteak bere barne araudia onetsiko du.

### *15. artikulua*

#### **Jarraipena**

Bitaminak edota mineralak gehitu zaizkien elikagaien eta III. eranskineko B nahiz C zatietan jasotako substantziak dituzten elikagaien jarraipen eraginkorra gauzatze aldera, estatu kideek elikagai horiek ekoizten edota merkaturatzen dituen pertsonari eska diezaioke merkaturatze horren berri agintaritzaz eskumendunari ematea. Horretarako, ekoizleak edota saltzaileak erabilitako etiketaren ereduak aurkeztu beharko du. Kasu horietan, produktua merkatutik kentzeari buruzko informazioa ere eskatu ahal izango da.

### *16. artikulua*

#### **Ebaluazioa**

Beranduenez 2013ko uztailaren 1ean, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari Erregelamendu hau aplikatzearen ondorioei buruzko txostena aurkeztuko die. Txosten horretan, bereziki, honako kontu hauek landuko dira: bitamina nahiz mineral gehituak dituzten elikagaien merkatuak izan duen eboluzioa; produktu horien kontsumoa; produktuak herritarrei ekartzen dizkien nutrienteak; elikadura-ohituretan gertatu diren aldaketak; eta beste substantziarik gehitu den. Atal horiei buruzko informazioaz gain, txostenean Erregelamendu honi eginiko eta Batzordeak beharrezkotzat jo duen zeinahi aldaketa egiteko proposamena jasoko da. Hori dela eta, estatu kideek beharrezkoa den nahitaezko informazioa emango diote Batzordeari 2012ko uztailaren 1a baino lehen. Artikulu hau garatzeko arauak 14. artikuluko 2. paragrafoan jaso den prozedurarekin bat ezarriko dira.

### *17. artikulua*

#### **Neurri iragankorrak**

1. 3. artikuluko 1. atalean xedaturikoa betetzeko izanda ere, estatu kideek I. eranskinean ageri ez diren bitaminak eta mineralak erabiltzea edota bitaminak nahiz mineralak II. eranskinean jaso ez diren moduetan erabiltzea baimendu ahal izango dute beren lurraldeetan 2014ko urtarrilaren 19ra arte, betiere honako bi baldintza hauek betetzen badira:

a) substantzia Erkidegoan 2007ko urtarrilaren 19an merkaturaturiko elikagaiei gehitzeko erabili bada, eta

b) Agintaritzak mintzagai dugun substantziaren kontrako edo elikagaiak fabrikatzean substantzia hori modu horretan erabiltzearen kontrako irizpidea eman ez badu. Horretarako, estatu kideak mintzagai dugun substantzia erabiltzeari

1925/2006 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 404/26, 2006/12/30ekoa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

buruzko espedientea igorri beharko lioke Batzordeari. Espedienteak, gainera, 2010eko urtarrilaren 19a baino lehen aurkeztu beharko lirateke.

2. 2014ko urtarrilaren 19ra arte, eta Tratatuan xedatutakoarekin bat etorritik, estatu kideek murriztapen eta debeku nazionalak aplikatzen jarraitu ahal izango dute I. eranskineko zerrendan jaso ez diren bitaminak eta mineralak gehitzen zaizkien edota II. eranskinean jaso ez diren moduan gehitzen zaizkien elikagaiak merkaturatzeari.

3. Tratatuaren xedapenekin bat etorritik, estatu kideek elikagaiei gehitzen zaizkien eta I. eranskinean jaso diren bitaminen zein mineralen kopuru maximoei nahiz minimoei buruz indarrean dauden xedapen nazionalak aplikatzen jarraitu ahal izango dute, baita gehikuntza horri aplikatu dakizkiokeen baldintzei buruzkoak ere. Hori hala izango da 6. artikulua araberako erkidegoko xedapenak ezarri arte, edota erkidegoko xedapen zehatzak betetzeko.

*18. artikulua*

**Indarrean sartzea**

Erregelamendu hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeitun egunera sartuko da indarrean.

2007ko uztailaren 1etik aurrera izango da aplikagarri.

2007ko uztailaren 1a baino lehen merkaturatzen diren edo etiketatzen diren eta Erregelamendu honetan xedatutakoak betetzen ez dituzten produktuak igarotze-datara arte merkaturatu ahal izango dira, baina inoiz ez 2009ko abenduaren 31z geroztik.

Erregelamendu honetako atal guztiak derrigorrez bete beharrekoak eta estatu kide guztietan zuzenean ezartzekoak izango dira.

Bruselan, 2006ko abenduaren 20an.

*Europako Parlamentuaren izenean, presidentea* J. BORRELL FONTELLES

*Kontseiluaren izenean, presidentea* J.E. ENESTAM

## ANEXO I

## VITAMINAS Y MINERALES QUE PUEDEN AÑADIRSE A LOS ALIMENTOS

1. **Vitaminas**

Vitamina A  
Vitamina D  
Vitamina E  
Vitamina K  
Vitamina B1  
Vitamina B2  
Niacina  
Ácido pantoténico  
Vitamina B6  
Ácido fólico  
Vitamina B12  
Biotina  
Vitamina C

2. **Minerales**

Calcio  
Magnesio  
Hierro  
Cobre  
Yodo  
Cinc  
Manganeso  
Sodio  
Potasio  
Selenio  
Cromo  
Molibdeno  
Flúor  
Cloro  
Fósforo

---

## ANEXO II

**FÓRMULAS VITAMÍNICAS Y SUSTANCIAS MINERALES QUE PUEDEN AÑADIRSE A LOS ALIMENTOS****1. Fórmulas vitamínicas**

## VITAMINA A

retinol

acetato de retinilo

palmitato de retinilo

beta-caroteno

## VITAMINA D

colecalfiferol

ergocalciferol

## VITAMINA E

D-alfa-tocoferol

DL-alfa-tocoferol

acetato de D-alfa tocoferilo

acetato de DL-alfa tocoferilo

succinato ácido de D-alfa tocoferilo

## VITAMINA K

filoquinona (fitomedianona)

## VITAMINA B1

clorhidrato de tiamina

mononitrato de tiamina

## VITAMINA B2

riboflavina

riboflavina 5'-fosfato sódico

## NIACINA

ácido nicotínico

nicotinamida

## ÁCIDO PANTOTÉNICO

D-pantotenato cálcico

D-pantotenato sódico

dexpantenol

## VITAMINA B6

clorhidrato de piridoxina

piridoxina 5'-fosfato

dipalmitato de piridoxina

## ÁCIDO FÓLICO

ácido pteroilmonoglutámico

## VITAMINA B12

cianocobalamina

hidroxocobalamina

## BIOTINA

D-biotina

## VITAMINA C

ácido L-ascórbico

L-ascorbato sódico

L-ascorbato cálcico

L-ascorbato potásico

6-palmitato de L-ascorbilo

**2. Sustancias minerales**

carbonato de calcio

cloruro cálcico

sales cálcicas de ácido cítrico

gluconato cálcico

glicerofosfato de calcio

lactato de calcio

sales cálcicas de ácido ortofosfórico

hidróxido cálcico

óxido de calcio

sulfato de calcio

acetato de magnesio

carbonato de magnesio

cloruro de magnesio

sales magnésicas de ácido cítrico

gluconato de magnesio

glicerofosfato de magnesio

sales magnésicas de ácido ortofosfórico

lactato de magnesio

hidróxido de magnesio

óxido de magnesio

sulfato de magnesio

carbonato ferroso

citrato ferroso

citrato férrico de amonio

gluconato ferroso

fumarato ferroso

difosfato férrico de sodio



---

lactato ferroso	sulfato de manganeso
sulfato ferroso	bicarbonato de sodio
difosfato férrico (pirofosfato férrico)	carbonato de sodio
sacarato férrico	citrato de sodio
hierro elemental (carbonilo + electrolítico + deshidrogenado)	gluconato de sodio
carbonato cúprico	lactato de sodio
citrato cúprico	hidróxido de sodio
gluconato cúprico	sales sódicas de ácido ortofosfórico
sulfato cúprico	seleniato de sodio
complejo cobre-lisina	selenito ácido de sodio
yoduro de sodio	selenito de sodio
yodato de sodio	fluoruro de sodio
yoduro de potasio	fluoruro de potasio
yodato de potasio	bicarbonato de potasio
acetato de cinc	carbonato de potasio
cloruro de cinc	cloruro de potasio
citrato de cinc	citrato de potasio
gluconato de cinc	gluconato de potasio
lactato de cinc	glicerofosfato de potasio
óxido de cinc	lactato de potasio
carbonato de cinc	hidróxido de potasio
sulfato de cinc	sales potásicas de ácido ortofosfórico
carbonato de manganeso	cloruro de cromo (III) y su hexahidrato
cloruro de manganeso	sulfato de cromo (III) y su hexahidrato
citrato de manganeso	molibdato de amonio [molibdeno (VI)]
gluconato de manganeso	molibdato de sodio [molibdeno (VI)]
glicerofosfato de manganeso	

---

## ANEXO III

**SUSTANCIAS CUYO USO EN LOS ALIMENTOS ESTÁ PROHIBIDO, RESTRINGIDO O SUJETO A CONTROL COMUNITARIO**

Parte A: Sustancias prohibidas

Parte B: Sustancias sujetas a restricción

Parte C: Sustancias sujetas a control comunitario

---